

**EUSKADIKO KIROLAREN ETA JARDUERA FISIKOAREN VII. BILTZARRA**  
**VII CONGRESO DE LA ACTIVIDAD FÍSICA Y EL DEPORTE EN EUSKADI**

2021-12-02 Vitoria-Gasteiz 02-12-2021

***Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari***

Ahaldun Nagusi jauna, Alkate jauna eta zuekin batera etorritako beste gainerako ordezkari politikoak eta erakunde ordezkariak, Sailburu jauna, KAITen arduradun nagusi eta zurekin batera kide diren guztiak, jaun andreok, egun on.

Ezer baino lehen, eskerrik asko zuen parte hartzeagatik eta, batez ere, babes neurriak betetzeagatik.

Pandemian zehar inoiz baino argiago ikusi dugu osasunak zein garrantzia duen, zein lehenasuna duen gure bizitzan eta gure gizartean. Gure osasunarekin zuzenean lotuta dago kirola eta jarduera fisikoa. Horregatik, gizartean dauden arazoei irtenbideak eskaintzeko ekarpena egin ditzakete kirolak eta jarduera fisikoak. Hori da zazpigarren Biltzar honen xedea.

Compartimos el objetivo de avanzar en una sociedad más consciente de la importancia del ejercicio físico y el deporte. Esta es la misión que nos convoca en un momento tan especial de nuestra vida en convivencia con la pandemia de la Covid-19.

No cabe duda de que en nuestra mirada al futuro imaginamos una sociedad en la que el ejercicio físico y el deporte tengan un mayor protagonismo en nuestra vida. Ahora bien, tenemos que atender también al presente y estas últimas semanas estamos volviendo a sufrir las consecuencias de la expansión del virus. Por ese motivo, vamos a adoptar nuevas medidas de prevención y protección de la salud pública y personal. Medidas proporcionadas, medidas idóneas, medidas adecuadas...

La emergencia sanitaria vuelve a activar todos los mecanismos de la Ley vasca antipandemia aprobada en junio y actúa, también, como llamada a la responsabilidad individual y colectiva. Eso sí, contemplando también lo que la Ley antipandemia dice de la ponderación de las medidas en función de las circunstancias en cada momento, que no son siempre las mismas (como no son en este momento con respecto a periodos anteriores).

Tenemos ante nosotras y nosotros un puente festivo y a continuación las Navidades. Las medidas de protección de la salud personal comienzan por cada persona. Reitero el llamamiento a cumplir con rigor las medidas preventivas y a aprovechar la oportunidad que nos ofrece la vacuna. La vacuna significa protección personal y solidaridad social. La vacuna es salud, es actividad y es vida.

Osasunaren Mundu Erakundeak, Covidaren pandemia iritsi aurretik, sedentarismo eta jarduera fisiko ezaren pandemiak hitz egin zuen. Azken finean, gizarte modernoetan daukagun bizitzeko modu sedentarioa patologia askoren jatorria da. Baina ekidin daitekeen zerbait da. Egiaztatu ahal izan denez, jarraitasunez egindako jarduera fisikoak gaixotasun asko saihesten eta tratatzen laguntzen du.

Euskadin bizitza itzaropena munduko luzeenetakoa da, baina gure kezka ez da bakarrik zenbat urte biziko garen, baizik eta nola bizi ditugun urte guzti horiek, nolakoa izango den urte guzti horietan gure osasuna. Horretarako beharrezkoa da prebentzioan lan egitea, egoera horiei aurre hartzea, denok gehiago mugitzea. Horretara gonbidatzen gaituen egitasmo bat badugu eta “Mugiment” du izena.

Gizarte aktiboago bat lortzeko helburua dugu, Euskadi osasuntsuago bat eta, ondorioz, zoriotsuago bat lortzeko helburua. Horretarako jarduera fisikoa eta kirola bultzatu behar ditugu eta horretarako kirol-(EKO)sistema osoaren laguntza ere behar dugu. Auzolanean egin behar dugu bidea: Erakundeak, Kirolaren sektoreak eta Gizarteak.

Bide honetan betetzen ari garen konpromisoak hartu ditugu:

- Kirol Arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko legea;
- Jarduera fisikoaren eta kirolaren lege berria; edo
- Dopinaren aurkako legearen eguneratzea.

Ari gara, beraz, aurretik ditugun erronketara egokitzen.

Estamos trabajando para avanzar en una sociedad más activa, una sociedad más consciente de la importancia del ejercicio físico y el deporte.

Es cierto que nos hemos visto muy condicionados por la pandemia. El deporte, por su marcado carácter social, ha sufrido especialmente sus consecuencias. Ahora, con toda la prudencia, debemos devolver el ejercicio físico y el deporte al lugar que merece en nuestra sociedad.

En este sentido, la pandemia nos deja lecciones aprendidas. Ha extendido la convicción personal y social de la importancia del ejercicio físico. Nos está dibujando un escenario de futuro en el que la ciudadanía ha interiorizado la importancia del ejercicio físico regular, la alimentación saludable, la vida activa y, en definitiva, el cuidado de la salud personal.

En este marco damos la bienvenida a este Congreso. Contamos con las comunicaciones, experiencias y evidencias de las y los expertos que vais a formar parte de las ponencias y de las mesas de debate.

Contamos con los debates y el intercambio entre los grupos de interés. Esperamos, por lo tanto, contar con las aportaciones que nos ayuden a transitar a un nuevo tiempo en el que, además de la covid, superemos la “pandemia del sedentarismo” sobre la que también nos alerta la Organización Mundial de la Salud.

Biltzar honetan parte hartzen duzuen guztioi ongi etorri eta eskerrik asko!